

Proiektuetarako jarduerak | Inklusioa

Bigarren Hezkuntza. 12-18 urte

Eskutitzak Europara

	Bigarren Hezkuntza 12-14 urte
	Maila Baxua
	Denboralizazioa 16 saio
	Kideak Gehienez 4-5 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Eskutitzak edo postalak idatzi eta proiektuko kide diren Europako lurralde askotakoak jasotzea.

Ikastetxearen pareta batean Europako mapa handi bat jarriko da. Bertan, jasotzen den postal edo karta bakoitza itsatsiko da, kasuan kasuko lurralde bakoitzaren gainean, eta kartelak erantsiko dira lurralde bakoitzeko hizkuntzan.

Jarduera osatzeko ikastetxe bakoitzak jarduera aurrera eramatean egindako argazkiekin bideo bat egin. Gero, TwinSpace-n partekatu.



JARDUERAREN XEDEA

- Ikastetxean **Europako Hizkuntzen Eguna** ospatzea, irailaren 26an
- Aniztasun linguistikoa eta hizkuntzek komunikaziorako zein garrantzitsuak diren lantzea
- Aniztasun kulturala balioestea eta Europako lurraldeen artean elkar ezagutza sustatzea

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea Prestatzea

1. urratsa Erregistroa

Irakasleek ikasleak proiektuaren TwinSpace-an erregistratuko dituzte eta ondoren ikasleei emango zaizkien gako pertsonalak jasotzen dituen dokumentua gordeko dute.



2. urratsa Jarduerak eta azpi-orriak prestatzea

Irakasleek hainbat orri sortzen dituzte TwinSpace-n proiektuaren garapena antolatzeko. Honako edukiak jasoko dituzte:

- **Proiektuaren planifikazioa** duen orria, xedeak, denboralizazioa, egin beharreko jarduerak eta parte hartuko duten lurralde eta ikastetxeak jasoko dituena
- **Kide den ikastetxe bakoitzarentzako** azpi-orriak, haien lurralde eta herriei buruz informatzeko
- Parte hartzen duten ikastetxeen **posta-helbideen berri** ematen duen orria. Ez da publikoa; erabilera irakasle koordinatzaileentzat mugatua
- Lurraldeek egiten dituzten **bideo-muntaketak** eta argazkiak jasotzen dituen orria

Proiektuari eta produktuei buruzko informazioa jasotzen duten orriak publiko egiten dira hasieratik. Era horretan, ikastetxeko gainerako ikasleek, irakasleek eta familiek proiektuaren berri izan dezakete.



4. urratsa Kide diren ikastetxeen posta-helbideak eta postalak/eskutitzak bidaltzeko gehieneko data

- Irakasle kideek **erabilera mugatua duen orrialde pribatu batean** parte hartzen duten ikastetxeen posta-helbideak **partekatzen** dituzte. Dozente bakoitzak orrialde kolaboratiboa editatzen du eta bere ikastetxearen helbidea idazten du.
- Dozente kideek **postalak bidaltzeko gehieneko data** bat finkatzen dute. Postal bakoitza ikastetxe batera bidaltzen da eta ikastetxe guztietatik postal bana jasoko dugu.

2. Fasea: Jarduera garatzea

1. urratsa: Jarduera aurkeztea

Irakasleak **proiektua aurkeztuko du** eta **kideek haien burua aurkeztuko dute**; parte hartzen duten ikastetxeen web-orri instituzionalera sartuko da. Ikastetxeen lurraldeak mapan kokatuko dira.

TwinSpace lanerako espazio gisa aurkeztuko da. Ikasleak TwinSpace-n sartuko dira irakasleak banatuko dizkien gakoekin (erabiltzailea eta pasahitza), TwinSpace-n haien profilak editatu eta osatuko dituzte eta egokitu zaien ekipoarekin harremanetan jarriko dira.

Ikasle bakoitzak egin beharrekoak:

- **Bere aurkezpena idaztea:** herria, jaiotza-lurraldea, hobbyak, familia, baina datu pertsonalik ez (telefonoa edo posta-helbidea adibidez)
- **Profilera argazki bat** edo irudikatzen duen irudi bat **igotzea**
- Kide diren ikasleei **mezuak uztea** komunikazioa bultzatuko duen hizkuntza baikorra erabiliz; haien hizkuntzan hitz batzuk edo agurtzeko mezuak gehitzea ideia ona da beti. Lineako itzultzaileak erabil daitezke



2. urratsa: Eskutitzak/postalak sortu, jaso eta bidaltzea

- Ikasle bakoitzak **bere herriko postal bat sortu edo erosiko du** eta mezu hau idatziko du bere hizkuntzan:

EUROPAKO HIZKUNTZEN EGUN ZORIONTSUA OPA DIZUEGU: LAGUNTASUNA, BAKEA, MAITASUNA-tik [haien lurraldearen izena deklinatuta]

- Irakasle koordinatzaileak parte hartzen duen ikastetxe baten **posta-helbidea emango dio** ikasle bakoitzari eta ikasleak bere postalean idatziko du

- Irakasle koordinatzaileak **postalak jaso eta postaz bidaliko ditu**, finkatutako data baino lehen
- **Jardueraren garapenaren argazkiak** egin eta TwinSpace-ra igotzen dira
- **Proiektuaren Egunerokoan iruzkinak** idazten dira

3. urratsa: Europako mapa duen horma-irudia prestatzea

- Postalak iritsi bitartean, Europako mapa prestatzen da, horma-irudi handi gisa, ikastetxeko paretaren batean eta **honako kartelak egiten dira**:
 - Proiektuaren izena
 - Parte hartzen duten lurraldeetako hizkuntzak

*Eskuz diseina daitezke edo tresna digital erraz bat erabil daiteke, adibidez, **CoolText.com** edo **conversordeletras.com***

Europako mapa bilatu eta inprimatzeko, [Inprimatzeko Europako mapak](#) estekan bilatu daiteke.

- **Jardueraren garapenaren argazkiak** egiten dira: kartelak idaztean, maparen kokapena hautatzean, Europako mapa paretan jartzean, etab.

4. urratsa: Gure ikastetxeari, herriari eta lurraldeari buruzko informazioa gehitzen da

- Postalak iritsi arte komunikazioa eta parte-hartzea mantentzen da, eta **gure ikastetxeari, herriari eta lurraldeari** buruzko informazioa gehitzen da dagokion azpi-orrialdean:
 - ***Gure ikastetxeari buruzko iruzkinak eta argazkiak***
 - ***Gure herria sustatzeko bideoa, monumentu edo toki interesgarrietarako esteka erantsi edo haien argazkiak erakutsiz***
 - ***Gure lurraldearen webgune ofizialaren esteka***
- Proiektuan parte hartzen duten **ikasle eta kideei mezuak** idatzi eta erantzuten dira **TwinSpace-n**
- **Proiektuaren egunerokoan** iruzkinak egiten dira fase guztien garapenari buruz eta zenbait argazki igotzen dira (*arreta berezia eskainiko zaio ikasleen irudia babesteari*)

5. Urratsa: Postalak Europako mapan jartzen dira

- Postal guztiak iritsi direnean, irakasle koordinatzaileak eta ikasleek **jaso dituzten postalak dagokien tokian itsatsiko dituzte** mapan eta Europako hizkuntzei buruzko kartelak gehitzen joango dira
- Europako maparen horma-irudia ikastetxeko paretetan jartzea zaila bada, **talde bakoitzeko kartulina bat** egin daiteke eta, bertan, **ikasleek postalak itsatsi** eta zein lurraldetatik datozen idatziko dute
- **Jardueraren garapenaren argazkiak egiten dira**, postalak eta prestatutako kartelak jartzean, eta TwinSpace-ra igotzen dira

6. urratsa: Bideo-laburpena egitea

Postal guztiak mapan jarri eta gero, lurralde bakoitzak proiektuaren fase bakoitzean egindako argazki guztiekin bideo bat osatuko du eta TwinSpace-n partekatuko du dagokion orrialdean. Ikasle boluntarioen talde bat eta dozentea arduratuko dira zeregin horretaz.

7. urratsa: Ikasleekin bideoak ikustea

- Horma-irudia amaitua dagoenean eta bideo-laburpenak TwinSpace-n partekatu direnean, **ikasleek lurralde kideen bideoak ikusiko dituzte** eta parte hartzen duten ikastetxeen azpi-orrialdeetan gehitutako informazioa **aztertuko dute**
- Ikaskide kideei **mezuak utziko dizkiete** eta agurtuko dira

3. Fasea: Datuak jasotzea eta sustatzea

1. **Proiektuari buruzko informazioa ikastetxearen web-orri instituzionalean eta sare sozialetan argitaratuko da** ikastetxeak Facebook eta Twitterren dituen profiletan
2. **Ikastetxearen web-orri instituzionalean TwinSpace-rako esteka zuzen bat** jarriko da
3. **Argazkiak ikastetxeko departamentuen jardueren berri ematen duen telebistan (tb) bistaratuko dira**
4. Ikasleek **gainerako ikastaldeak informatuko dituzte** eta jarduerari buruzko xehetasunak emango dizkiete postalak edo eskutitzak ikusten dituzten bitartean

AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)

- **Europako horma-irudia postalekin**
- Proiektua gauzatzean ateratako **argazkiekin egindako bideo-muntatzea**

TWinspace-KO TRESNAK/ KANPOKO 2.0 TRESNAK

- Twinspace-ko profil indibiduala, orrialde publikoak eta mugatuak, Materialak (Karpetak)
- Beharrezkoa da ikastetxeak edo nahasitako departamentuek zigiluen gastuak ordaintzea
- **Hizkiak online** egiteko programa digitalak, adibidez, CoolText eta conversordeletras
- **Argazkiekin bideoak** montatzeko programak: Movie-maker, Animoto, Wevideo, Magisto, Kizoa eta gisakoak
- Facebook, Twitter, Google+...jakitera emateko



DENBORALIZAZIOA

- 1. Saioa: **Proiektuaren eta kideen aurkezpena**
- 2. Saioa: **TwinSpace-n sartzeko gakoak** banatzea. **Proiektuaren egunerokoa** **hastea**
- 3., 4. Saioak: **Profilak osatzea**, taldekideekin harremanetan jartzea
- 5., 6. Saioak: **Postalak sortzea** (irudiak margotu edo itsasten dira) eta testua idaztea. Proiektuaren Egunerokoan iruzkinak idaztea
- 7. Saioa: **Ikastetxeen posta-helbideak** banatzea. Irakasleak jaso eta bidaltzea
- 8., 9. Saioak: Europako maparen horma-irudia prestatzea
- 10, 11. Saioak: **TwinSpace-n mezuak eta argazkiak** uztea eta gure ikastetxeari, herriari eta lurraldeari buruzko informazioa ematea. **Proiektuaren Egunerokoan** iruzkinak
- 12, 13. Saioak: Postal guztiak iritsi direnean, **horma-irudian jarriko dira**

- 14. Saioa: Ikastetxe bakoitzean **jardueraren bideoa** egingo da pixkanaka egin diren argazkiekin. TwinSpace-ra igoko da
- 15, 16. Saioak: Lurralde bakoitzak TwinSpace-n utzitako **informazioa kontsultatzea** (bideoak eta azpi-orriak)